



GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

85. zenbakia

95eko urtarrilak 19



Txotxetik aukera zabala

JOXE TELLERIA, S.M.

**Aseguroak
Korreduria**

*Beti prest zure arazo guztiak konpontzeko.
Ez dago hoberik!*

BEASAIN Erauskin Plaza, 2

☎ 882643 - 887155 Faxe: 887155



AGF UNIÓN  FÉNIX

○ JOSE MARI LASA, LEGORRETAKO KUTXA: ○ “Legorretan ez dago lanpostu eskaintzarik”

Legorretarra da eta 49 urte ditu Jose Mari Lasak. Oinarriko batxilergoa eta lanbide heziketa egin ondoren, CAFen aritu zen delinante lanean, 9 urtez. Handik Berogase-
ra eta 1973ko San Fermin egunez sartu zen Kutxan.

G.- Goierri eta Tolosaldearen mugan dago Legorreta.

E.- Herri erreserba da, inoren lurra. Gauza batzuetarako Goierri da, irakaskuntzarako adibidez, baina osasun gaetan Tolosaldeari dago-
kio. Laguntzak ezkerretik eta eskubitik jasotzen ditugu. 1.477 biztanle ditu, gutxituz doaz piskanaka. 1987an 2.000 biztanle zituen. Kasualitatea izan daiteke baina jaitsiera hau meatokiaren itxiera-
rekin batera etorri da. Euskaraz % 77ak daki.

G.- Legorretaren arazo handienak zeintzuk dira?

E.- Ez daukagu lanpostu eskaintzarik. Gero eta biztanle zaharragoa da-
gukagu, eta gutxi jaio-
tzen dira (iaz 5). Gazteek

ez daukate lan finkorik. Zaharrenen bakardadea. Kultur maila ez da oso altua. Etxebizitzan prezioak oso garestiak dira, soldatak bajuak dira, gero eta bizio gehiago dago, hutsik dauden etxebizitzak ez dira alo-
katu nahi. Duela 5 urte egindako ikerketa baten arabera, herrian 50 bat etxebizitza egon daitez-
ke hutsik.

G.- Legorretaren egoera laborala zein da?

E.- Biztanlegoaren % 15,7a 65 urtez gorakoa da. % 53,7a 25 eta 65 urte bitartekoa da. Beraz, biztanle aktiboak 777 lagun dira. 777 pertsona hauetatik % 51,8 gizo-
nezkoak dira. Herrian 6 enpresa nagusi ditugu. (Ikus Legorretako kronika). Papeleran nahiko lanekin dabilta.

G.- Bilkoin K.E.-ren sortzaileetako bat zaitugu. Lan asko egiten du herrian, ezta?

E.- Bi elkarte daude herrian. Bilkoin K.E. 1973an sortu zen, urte hartako festetan inauguratu zen. Gaur egun 150 bazkide ditu. Bi urtetan zehar, lehenengo presidente izanaren ohorea daukat. Kutxaren mailegu bati esker lortu zuen bere lo-
kala izatea. Bitxikeria bezala aipatu, Juan Mari



Jose Mari Lasa Legorretari buruzko hainbat datu interesgarri eman dizkigu, herriko kronikan dituzu beste zenbait.

Jauregi Gipuzkoako Gobernadore Zibil kargua hartu aurretiko 8 urteetan, bertako presidentea izan zela. Aipagarria da Bilkoingo bazkideek kirol ekintza ezberdinak antolatze-
ko jartzen duten gogo. Futbola, pelota, txirrindularitza, krosa eta mendi irteerak, besteak beste.

Jotakea elkarte, duela 29 urte sortu zen. Hasi-
siera batean Udaletxeko lokal batean hasi ziren, baina gerora euren lo-
kala lortu zuten. Bi elkar-
teok elkarrekin zenbait kirol eta giza ekintza an-
tolatzen dute. Aipagarria da Jotakearen kokagune aldaketarekin gazte talde bat sartu zela elkartean. Gaur egun 60 bazkide ditu.

G.- Zer moduzko urtea izan da? Nolako aurrikusten da?

E.- 95ean, Kutxaren produktu eskaintza sail zabala osatu duen eta eskari handia zuen produktua jarri du martxan: Kontugazte eta Gazte-
txartela. Kontugazte-
te-
k o-
hiko libretak baino inter-
res altuagoa eskaintzen du eta Gazte-txartelak probintziatik kanpoko kutxatiletan, inongo komi-
siorik gabe, dirua ateratzeko aukera eskaintzen du. Nik uste produ-
ktu honek ikasleari mese-
de egiten diola.

96rako Kutxaren nahia bezero guztiei produktu gama zabala eskaintzea da. Gogoratu zerbitzuen eskaintza zabala eta ugaria dela.



**kutxa fundazioa
fundación kutxa**

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

"Goierritafrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.

(Postetxe-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,

20240 Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Maketazioa:

Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Joseba Te-
lleria, Ane Martin, Loinaz Agi-
rre eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Iraida Martin,
Miren Barandiaran, Joxepa
Madariaga, Josetxo Zufiaurre,
Gabino Murua, Izaskun Salazar,
Rufino Iraola eta Gorka Etxarri.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.500 ale. 5.400 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼

Alzheimer gaixoen sendiartekoen elkarte

Ordiziako Zaharren Egoi-
tzan duela 7 urtetik egiten
dituzten hitzaldien barnean
kokatu zuten Alzheimer
gaixotasunari buruzko Igo
ihardunaldia. Baina gaia-
ren gaurkotatzea eta inte-
resa ikusirik, Goierri oso-
rako deialdia egin zen.
Jendearen erantzuna oso
ona, 80 lagun, zahar eta
gazte, guztiak gaiaz kez-
katurik. Lehenengo ihar-
dunaldiak izan dira eta ja-
rraipena eman nahi zaio.

"Oso gai konplikatu da
eta inplikazio asko ditu. Bai
gaixoenentzako, eta gehiena
familiarrentzat eta zain-
tzaileentzat. Etxekoak, in-
gurukoak eta etxea bera
prestatuta egon behar dira.
Hori dela eta, Alzheim-
errak jotako gaixoen sendi-
arteko eta zaintzaileen tal-
de edo elkarte bat sortu
nahi da Goierri mailan,
laguntza, esperientziak,
aholkuak... banatzeko. Gi-
puzkoa mailan Afagi da-
go", adierazi digu Inazio
Mendiguren medikuak.
"Lukro asmorik gabeko
taldea da, noski".

Jokaera arraroetan an-
tzematen zaie gaixotasuna.
Leku ezagunetan galtzea,
memoria arazoak... hortik
hasten da. "Susmoren bat

dagoenean Ongizate sai-
lera edo sendagileengana
joan. Hasiera izaten da
zailena, onartzea", ahol-
katu dute.

Gero eta kasu gehiago
dago. Gipuzkoan 5.000
kasu ezagutzen dira, baina
"kasuak ezkutatu egiten di-
ra, jendea beldurra edo
lotsa ematen dio etxean Al-
zheimerrak jotako gaixoa
dutela esatea". Baina zer-
gatik sortzen da Alzhei-
merra? "Ez dira zergatiak
ezagutzen. Bizi itxaropena
luzatu denean sortu da.
2000. urtean suposatzen da
Alzheimer kasuak bikoiztu
gingo direla. Batzuk lo-
tura genetikoak daudela
diote, baina hori ez dago
konprobatuta", zehaztu
digute. "Lehen memoria
galtze kontu hori adin
kontua zela esaten zen.
Baina Alzheimerra erabat
desberdina da. Azkenean
ume bihurtzen dira".

Beraz, taldean sartu nahi
izanez gero, harremaneta-
rako telefonoak hauetxe-
dituzue: Inazio Mendigu-
ren: 881512; Amagoia
Murumendiarrak: 881377;
eta Kristina Altuna:
888250.

Besteek esana

"Ez da egia KAS baino
gehiago ikertzen ari garela
GAL. Aitzitik, gehiago iker-
tzen da KAS, kezkatu egiten
gaituelako eta egunero na-
bari dugulako bere eragina,
GAL berriz, historiari pa-
satu zen".

Juan Mari Jauregik
'Egunkaria'n 96-I-9an

"Herri honentzat ez ote dira
gaztetxo harrikariak baino
ariskutsuago egunero al-
biste txarrak leporatzen diz-
kiguten korbatadunak, da-
tuak beren gerrarako erabil-
tzen dituztenak, edo zenbait
soziologo, esaterako?"

Iñaki Mendigurenek,
'Egunkaria'n 96-I-11n

"Haur gehiago zergatik ez
den jaiotzen galdezka has-
teak ez du eta ez dago kausa
bat beste bat baino sendo eta
errespetagarriagorik. Nahi
dutzen kausa guztiengatik,
lehen, ekintza inkontzientea
zen haurrak ekartzea, hau da,
abioian, ez zegoelako, ibil-
tzerik ez zegoen arrazoi ber-
berengatik ez zuen kuestio-
natzen jendeak haurrak
munduratzea. (...) Baina,
lehen eta orain, haurrak
mundura ekartzea beti da
erantzukizun eta ardura
handia. (...) Oinarri ekono-
miko sendorik gabe, gaur
gazte askori gertatzen zaie
bezala, haurrak ekartzea
irresponsabilitate ikaraga-
rria da".

Rufino Iraolak, 'DV'n
96-I-9an

*Eusko Jaurlaritz-
ako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Nik ez dut pakeari buruz hitzegin nahi

"Pakea gora pakea behera, asesinoak zuek, pazifistak gu; errepresatzaileak zuek, salbatzaileak gu". Ez, ez dut horrelako pakerik nahi. Ez dut ezta pakeari buruz hitzegin nahi ere, pakea bakoitzak bere taldearen arabera erabiltzen eta manipulatzeko duen hitza bait da.

Konflikto gogor batean bizi gara eta egun batean hori konponduta ikustea besterik ez dut nahi. Hori lortzeko bidea edo giltza ordea, ez dago inolaz ere besteen esku: *"Besteek dute erru guztia, besteak dira hiltzaileak, bahitzaileak, beldurraren indarra erabiltzen dutenak; bai zera, besteak dira torturatzatzaileak, errepresioaren erabilera egiten dutenak, probokatzaileak".*

Eta bando batean zaude edo ez zaude, gurekin zaude edo gure aurka, eta honela ez bada pasota bat zara noski.

Urteak daramatzagu dinamika honetan sartuta ezer konpondu gabe. Baina gauzak aldatu dira; posturak radikalizatu, urrundu eta gorrotoa gehitu egin da, hori ordea, konfliktoa konpontzeko ez da batere ona.

Zerbait positiboa lortu baldin bada, hori, gizarteak edo jende xumeak iritziak kaleratzeko irabazi duen ausardia da. Baina ausardia hori gorroto gehiagoko pizteko, gizarte gehiago enfrentatzeko, posturak urruntzeko bakarrik erabiltzen bada ez du konfliktoa konpontzeko balioko.

Konfliktoa ez da konponduko alde batek besteari berea inposatzen dionean, alde batek besteari irabazten dionean (erahiriketa, bahiriketa, beldurra, tortura, errepresio eta baztertzeko bidez). Konfliktoa konpontzeko herri honetako % 80ak beste % 20a kontutan izan behar du eta % 20ak beste % 80a. Konfliktoa ez da konponduko gehien-goak gutxiengoari berea inposatzen dionean edo gutxiengoak gehien-goari berea inposatzen dionean. Konfliktoa, bai gutxiengoak eta bai gehien-goak akordio komun batetara iristen direnean konponduko da.

Baina akordio batetara iristeko bide luze bat ibili behar da, gizarte osoa ho-

rretarako prestatu behar da, jarrera egokiak sortu behar dira. Jarrera horien artean besteari entzuteko eta ulertzen saiatzeko gogoia egon behar da, baina horretarako oso garrantzitsua da aurretik esandakoa, hau da, burutik kentzea erru guztia besteek dutela: *"zuek hiltzeari eta bahitzeari uzten diozuenean konponduko da konfliktoa edo zuek errepresioaren erabilera eta besteak baztertzeari uzten diozuenean konponduko da konfliktoa".* Hori pentsatzen jarraitzeak, konfliktoa mantentzearen errudun izatea da.

Talde guztiek dituzte (beraien ustez) arrazoiak jokatzeko duten bezala jokatzeko eta egiten dutena justifikatzeko eta ez dituzte beste taldekoek konbentzitzen egiten ari direnari uko egiteko. Arrazoiak eta erruak alde guztietan daude, eta konfliktoan aurrera egiteko eta jarrera egokiak sortzeko pauso berri bat eman behar dela iruditzen zait: bakoitzak lan egiten duen alderdi edo/eta taldean egonik, bertan sortzen diren eta konfliktoa areagotzen duten jarrera eta iritzien aurrean kritiko izatea, aurre egitea eta gaitzestea.

Bidea ez da konfliktoa mantentzeko besteak zer egiten duen pentsatzea, gutako bakoitzak zer egiten dugun ikustea eta aldatzea baizik.

Baina geure buruarekin eta geure taldearekin kritiko izaten ez digute erakutsi, ez gaituzte hezi, ez bait da komeni. Horregatik bai alde batekoek eta besteek beren taldeari itsu itsu jarraitzen diote, behin da berriz zulo berdinean eroriz.

Konfliktoa mantentzen jarraitzeari utzi nahi badiogu bakoitzak bere taldekoei esan behar die argi eta garbi zer egiten ari diren sua gehiagoko pizteko, posturak urruntzeko, radikalizatzeke, eta kontrako posturak aurrera ateratzen saiatu.

Baina ausardia handia behar da horretarako. Ausardia handia behar da ondoko edozein taldeetako partaide izanik (Estatua, talde armatuak, alderdi politiko, gizartearen aldeko taldeak, komunikabideak...) sua gehiagoko pizten duten jarrerak gaitzesteko eta bide berriak proposatzeko.

Elkar gerturatzea, ulertzea eta elka-

rizketatzea uste dut direla jorratu behar diren bide berriak. Baina hori ezinezkoa da geuk sortzen ditugun kontrako jarrerak ikusten eta gaitzesten ez ditugun bitartean. Eta horretarako kontzientzia kritikoa izatea behar beharrezkoa da. Bestela konfliktoa mantentzearen errudunak izaten jarraituko dugu.

Lurdes Segurola (Ordizia)

Perirako poltsak

Saiatzen da Ordiziako Udala asteazketako periarri eutsi nahiean, lan zaila izan arren, eta badiudi helburu hortara zuzendutako beste zenbait ekintzen artean, poltsa berezi batzu banatu behar dituztela sailtzaileen artean, honela bertan saldutako produktueri nolabaiteko nortasuna emanez. Ez dago gaizki pentsatua poltsarena, baina ohizkoa den bezala plastikozkoak izango direlakoan, ohartxo bat egin nahi nuke hortaz.

Ikusi besterik ez dago nolatan aurkitzen diren kale, plaza, mendi eta erreka bazterrak, plastikozko poltsez beterik eta horiek sortzen duten zerrieriaz nardastuz, zer nolako kaltegarriak diren kontutan hartzeko. Esan leike praktikoa direla baina ez dut uste praktikotasun honek aipatutako zikinkeria ordaintzen duenik. Ipar amerikarrek, adibidez, ez dute behar bada beste lurraldeak hondatzeko errespeto haundirik, baina ongi hartzen dute kontutan berea. Ikusi besterik ez daude bere parke naturalak, hain zuzen ere munduko onenak. Ba egunero telebistan ematen dizkiguten filme yankeetan erreparatuz gero, ikusiko dugu nolatan irteten diren supermerkatutako bezeroek paperezko zorro haundietan erositako janariak eramini. Ez ote leike hortaz posible Ordizian periko poltsa bereziak paperezkoak izatea? Benetan eredu garria izango litzateke.

Jose Jabier Iraeta (Zaldibia)

Intereseko Telefonoak

Mutiloa

Udaletxea:801285

Tfno. publikoa:801166

Olaberria

Udaletxea:881434

Eskolak:881232

Castillo Hotela:882011

Tfno. publikoa:881111

Ormaiztegi

Udaletxea:882660

Anbulategia:888432

Segura

Udaletxea:801006

Anbulategia:801919

Eskolak:801776

Hospitela:801041

Zegama

Udaletxea:801115

Anbulategia:801351

Eskolak:800042

Zerain

Udaletxea:801724

Medikua:801136

Tfno. publikoa:801183

Errezeta



Maria Pilar Alonsok emana
Zaldiak jatetxea
Olaberria

IZOKINA ESPARRAGO ETA ALMEJEKIN

Osagaiak: Izokin olela, 3 almeja (marinera erara), 2 esparrago "triguero", gurin piska bat, limoi zuku tanta batzuk eta ardo txuria.

Izokin okela txapan pasatu, kolore piska bat emateko; la-bean sartu 5 minutuz. Lurrunetan ireki 3 almeja. Bi esparrago irakinda eduki.

Izokina labetik atera, eta erabili dugun bandejan bertan utzi. Gurina, ardo txuria eta limoi zuku tantak ondo irabiatu edo batitu, menier arina lortu bitartean. Perrexil txiki-tuarekin apaindu.

On egin. Goierritar guztiei, eta batez ere nire irakasle Juanito Rubiori eskainia.

Bota bertsoa



Joxe Ramon Elorza
Gaia: ardoa ala sagardoa?
Doinua: Iparragirre
abila dela

Jan edanean borobiltzen da euskaldunen zoriona jarri didaten aukera ezta bi aurpegiko txanpona sagardoan grazia ardo on berezia bakoitzari, zor zaiona neurria hartzen jakin ezkerro bat bestea bezain ona.

Ez dezagula denbora galdu horrelako ika-mikan baina garaia orain da eta gure zain ohizko tokitan makailauan tortila ondoan intxaur pila ta txotxerako irrikan sagardoari ez uko egin ardoaren inbiritan.

UNTXUNDEI Garajea




OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN



Urtarrilak 20, "El presidente y Miss Wade", 19:30 - 22:15.

Urtarrilak 21, "La princesa cisne", 16:45. "El presidente y Miss Wade" 19:30 - 22:15.

Urtarrilak 22, "El presidente y Miss Wade" 19:30

Legorreta:

Urtarrilak 22, 'Maximo Riesgo', Herri Zineman, 20:30ean.

Urtarrilak 29, 'Malcom X', Herri Zineman, 20:30ean.

SAN BLAS JAIAK

Idiazabal:

Urtarrilak 27: 10:00etatik eguerdira arte eta arratsalde partean, tiroa Guardi aldean. 16:00etan herriko txirrindulari txapelketa nagusia. 18:00etan Futbito Txapelketako azkenaurre-

ko partiduak futbito pistan. 22:00etan antzerki ikuskituna: Tanttaka taldearen 'Umekeriak' antzezlanak Igarondo pilotalekuan. 23:30etik 3:30era Drindots.

Urtarrilak 28: 10:00etan XI. Xake txapelketa Kultur Etxean. 11:00etan Idiazabalgo XVI. Herri Krosa. 16:30ean umeen danborrada. 18:30ean Trikitilari gazteen jaialdia Igarondo pilotalekuan. Aurretik, kalejiran ibiliko dira trikitilariak herrian zehar.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urtarrilak 21, Etxaurira mendi irteera.

Urtarrilak 26, Beriain (1.493 m.).

GOARDIAKO BOTIKAK

Urtarrilak 19: Jauregi; **20-21**: Azpilikueta; **22**: Laurnaga; **23**: Cuesta; **24**: Arriola; **25**: Urbizu; **26-27-28**: Atorrasagasti; **29**: Azpilikueta; **30**: Jauregi; **31**: Laurnaga; **otsailak 1**: Cuesta.



Zuhaitz landareak

Zuhaitz landareak aldatzeko garaian gaude bete betean. Frutarboletan, sagar, udare, aran, urritz, muxika eta piku landareak 450-600 pezetan saldu zen bakoitza. Intxaur eta gaztainondoak 2.000 pezetan. Mahats landarea 2.500ean eta kiwiak 1.000-1.200 pezeta bitartean. Basoko landareetan, berriz, insignia eta larizeoa 20 pezetan; gabon pinua edo duglosa 40-60an; pagoa 80-200 pezetan eta haritza 100-200ean. Zuhaitzketan, evonimusa 25 pezetan; koniferak 1.200-1.500ean; eta kameliak 1.500-8.000 pezetan. Guztiak ere neurriaren arabera.

Bestelako nobedadea ardi-esnea izan zen. 200 peze-

tan saldu zen litroa. Ardi-gazta berria ere ari da saltzen piskanaka eta 1.400-1.550ean dago kiloa. Arku-meari dagokionean, 249 saldu ziren, gehienak 400 eta 370 pezeta bitartean saldu ziren.

Bertako produktuetan, indaba beltza zertxobait jaisten ari da. 600-1.000 pezeta bitartean dago. Kanpokoetan, udarak 225-200ean; azalora 175-200ean bakoitza eta piper berdeak 300-350ean saldu ziren.

Arrainetan azkenik, legatza 2.350ean; mihi-arraina 1.870ean; izokina 1.250ean; txitxarroa 950ean; sardinak 620an; antxoak 950ean eta angulak 21.000 pezetan.

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



- Ileapaindegia
- Edergintza
- Solariuma

Itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37 ☎ 88 02 97
BEASAIN

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19

Ergoienea Auzoa
ATAUN



Senpere Merkatal Gunea
☎ - Faxes: 16 19 90 BEASAIN

Egur laminatuzko leihoak •
P.V.C. • Aluminio • Poliuretano •
Ateak • Pertsianak • Gortinak •
Parket flotantea

Karlos I Etorbidea, 2 - behe
☎ 46 22 66 Faxes: 46 22 24 DONOSTIA



Miren Barandiaran,
Historia ikaslea

**“Edonolako
partidismotik
aldenduz
baloratu behar
dugu guzti hau,
Euskadiko
lehenengo
alderdi
abertzalearen
sorrerarekin
gure historiak
norabide berri
bat hartu
baitzuen”.**

Iragan berria zaigun 1995 honetan Euzko Alderdi Jeltzaleak bere mendeurrena ospatu du Euskadi osoan zehar. Ez goaz honi buruz ezer berririk esatera, nahikoa idatzi eta eztabaidatu baita horren inguruan aspaldi honetan, oso ikuspuntu ezberdinetatik gainera. Baina, Beasaingo ibilbideari buruz zerbait aipatuko dugu, gure herrira ere iritsi baitzen ospakizun honen oihartzuna. Horren hildotik doa, hain zuzen ere, gure *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia* liburua.

XIX. mendearen bukaeran Bilbo inguruan sortu eta Gipuzkoara XX.aren hasieran hedatzen hasi zen Euskadiko lehenengo alderdi abertzaleak Goierriren ere eman zituen bere fruituak aurreneko urte haietan. 1904an Lazkaoko batzokia sortu bazen, 1908an Ormaiztegiako iritsi zitzaion bere txanda; urte hartako azaroaren 22an ireki zen Beasaingo batzokia eta herriko jeltzale aintzindari bakan haiei esker abertzaletasunaren garra pixkanaka pizten joan zen inguruan.

Handik aurrera EAJren presentzia herrian gauzatzen joan zen. Euskadiko historiaren gora-beheretan zuzenki murgildurik, momentu on eta garratzen lekuko izan ziren abertzaletasuna sentitzen zuten gizon eta emakume haiek. Itxaropenez beterik egin ziren hainbat eta hainbat kultur ekintza, II. Errepublikako loraldian adibidez: jai bikaintan amaitu ohi ziren inguruko


Beasaingo EAJren ibilbideari buruz

herri eta mendietara egindako irtenaldiak Goierriko beste herriei elkarlanean, antzerkiak batzokian...; lehenengo fruitu garrantzitsuak jaso ziren Euskadi eta euskal abertzaletasunarentzako horren aberatsa izan zen 30. hamarkadan edo gerora, demokrazia garaian Udaleko zuzendaritza eskuratzean... Egon ziren, ordea, une beltz ugari ere, hasierako urte gogor haiek bezala, Espainiako alderdien aurkakotasun itsua eta jendearen mespretsua jaso zituztenekoa; alderdiaren historian zehar emandako zatiketa guztiak; berea etzuen Gerrate Zibil baten pairamena edo Primo de Rivera eta batez ere Francoren diktadura garaiek Euzko Alderdi Jeltzalearen jarraitzaileentzako suposatu zuten jazarpen sutua...

Poztasuna eta samina. Ez dago hau ezerk baino hobeto isladatzen duen 1936ko batzokiaren inaugurazioa aipatzea besterik, beasaingar eta inguruko abertzaleen alaitasuna zuztarretik ebakiak izan baitziren, Espainiako Gerrate Zibilak uztailaren 18 eta 19rako antolaturik zegoen batzokiaren inaugurazio handia beltzez tintatu baitzuen.

Zailtasunak zailtasun, Euzko Alderdi Jeltzaleak bere 100. urteurrena ospatu ahal izan du. Alderdi politiko baten mendeurrena baino zerbait gehiago da, dudarik gabe, euskal abertzaletasuna eta EAJren bideak luzaro bat bera izan baitziren. Edonolako partidismotik aldenduz baloratu behar dugu guzti hau, Euskadiko lehenengo alderdi abertzalearen sorrerarekin gure historiak norabide berri bat hartu baitzuen; saiatu, bestela, gaurko euskal gizartea abertzaletasunaren ideologiarik gabe imajinatzen (edonolako *kolorekoa* dela ere)...

Honela, Beasaingo herriaren historia ezagutzeko ezinbestekoa da alderdi honi begirada bat botatzea, izan ere, alderdi politiko guztietan *bizi* gehiena eduki zuen honek abertzaletasuna ekarri baitzion Goierriren bihotzean kokaturiko Beasaini; mende honen magalean sortutako aldaketa eta garai ezberdinei egokituz, herriaren bilakaeraren protagonista garrantzitsu bat bihurtu zen. Hau izan da, beraz, gure liburuarekin lortu nahi izan duguna: Euzko Alderdi Jeltzalearen mendeurrenak eskeintzen zuen aukera geureganatuz, orain arte ixilpean edo ezkututan zegoen herriaren historiaren atal honi ateak ireki, jendearen memoriari gorderik zeuden bizipenak berreskuratu gure iragana hobeto ezagutu ahal izateko. Hona, beraz, gure lanaren fruitua.



* Urtean 6 ale.
* Urtebeteko harpidetza: 2.400 pzta.
BIDALI: 131 p.k. 20.240 ORDIZIA

Izen-deiturak
Helbidea.....Herria.....Tfnoa
Kontu zenbakia (20 zenbaki)



pintura eta gaineztadurak
Aita Urdaneta, 6
☎ 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA

Haurrak

Badira hainbat gauza mundu hone-tan, zoragarriak direnak. Guztiak ez ditugu egiten, guztiak ezin ditugu egin. Lehentasunak jarri eta, ahalmenen arabera, aukerak egiten ditugu. Gainera, gauza zoragarri guztiek beren momentua dute: gaur eta niretzat zoragarria dena, bihar nazkagarria iruditu dakidake.

Haur bat izatea, haur batez erdiztea, zoragarria omen da. Haur bat izatea, ordea, nahi ez denean, gogorra izango da. Antisorgailuen erabileraren aldarrikapena egitea ez da artikulu honen helburua, ez. Beste bat da nik azaldu nahi dudana iritzia.

Gaurko haurrak dira etorkizuna, haurrek ziurtatzen dute etorkizuna. Egoista izatea ote da "etorkizunean pentsatu gabe", "geure zilborrari begira" bizitzea?, egoista ote naiz gaur zer nahi, horretan saiatur, biharkoari, "etorkizunari" erreparatu gabe, haurrik munduratu gabe, alegia, bizitzeagatik?

Nire lehentasunen artean, gaur gaurkoz, ez dago haur baten ama izatea eta horregatik ez dut uste giza eboluzioaren katea eteten dugunik erabaki hori hartu dugunok. Horixe da guztia.

Joxepa Madariaga

Merkealdien zain egoten al zara?



Isabel Garzia
44 urte, adminis-trari laguntzailea
Ormaiztegiakoa

Ez naiz merkealdien zain egoten. Zerbait behar badut, orduan bai, eros-ten dut. Jendeak beharrik gabe erosten du.



Arturo Casado
32 urte, Ordiziakoa
Renfeko langilea

Ez diet batere kasorik egiten. Ez naiz enteratu ere egiten. Gabonetan diru asko gastatzen eta ordurako ez da gastatze-ko askorik egoten.



Arantxa Munduate
63 urte, ordiziarra
etxekoandrea

Kaso gutxi egiten diet. Propio ez naiz joaten. Nik uste lehen ohitura gehiago zegoela mer-kealdietarako, diru gehiago zegoelako-edo...

Bitxikeria

Garia gure folklorean

Euskal jentilek gari pila handiak jasotzen omen zituzten gure mendietan. Kristauek, ordea, ez zeukaten labore honen berririk; eta artatxiaz baliatu behar irina egiteko eta beste. Baina halako batean San Martin txiki bota zakar batzuk oinetan zituelarik, Ataungo Muskizko kobara jo omen zuen jentilak ikustera. Gari pilan sartu belaunetaraino eta botinak gariz beteta, basajaunei ostu omen zien gari hazia. Ez alperrik! Ez baitzekiten kristauek noiz erein zitekeenik ere. S. Martin txiki zelan zegoela, Basajauna algaraz kantuan ari zela sumatu zuen:

Ja, jaaai! Baleekia artuko likenea: / orr' irtete, arto eitte: / orr' erorte, gari eitte; / ta San Lorentzoota arbi eitte.

Eta ordutik zabaldu omen zen garia Euskal Herri osoan. Eta artatxiak eta ezkurak gana-duen bazka bilakatu ziren geroztik.

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN

mujika
OINETAKOAK
Deskontu bereziak
Nafarroa Etorbidea, 11 - Tef. 88 27 16
BEASAIN

KITTO
taberna

Goizetan 8etatik aurrera zabalik

Joan Iturralde, 1 ☎ 16 19 39

BEASAIN


BUKO
Jantetxea

Zorionak Juli gure
lankideari ama izan
delako!

Ongi etorria Enara
jaio-berriari!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Ba al dakizu?



JUAN MARI ZEBERIO

Hizkuntza Politikarako sailburuordea bere postutik kentzeko aukera aztertzen ari da Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua. Zenbait informazioaren arabera, azken hilabeteotan bien artean sortu omen diren desadostasunak direla-eta, hartuko du erabakia. Itxura denez, AEKrekin lortutako akordioa, gero Jaurilaritzak atzera bota zuena, eta funtzionarioen euskalduntze prozesuan Zeberio ataundarrak izan duen papera ez dira Garmendia ormaiztegiarraren gustokoak izan.



JABIER ELZO

beasaindar soziologoak, beste zenbait lankiderekin elkarlanean, zeresan ugari eman duen txostena aurkeztu zuen urtarilaren 8an. Biolentzia justifikatu edota erabiltzen dutenak izan dituzte azter-

gai, Eusko Jaurilaritzak eskatutako azterketan. Ondorioak hauetxek: izaerari dagokionez, *"iraultzaile, nazionalista eta euskal identitate kultural handikoak"* dira. *"Telebistari ez diote sinesgarritasunik ematen eta autoritatea baztertzen dute"*. Helburuei dagokionez, *"gizartean aldaketak ezartzera behartuak"* sentitzen dira. Gazte hauek definitzeko askotan *"gazte erradikala"* hitzak erabiltzen dira, Jabier Elzorentzat egokiagoa da *"gazte biolento"* edo *"gazte terroristak"* esatea. Egiturari dagokionean bi zatitan banatzen dituzte: *"aintzindari gisa"* jokatuko luketeenak eta hauen inguruan, beste gazteak. *"Lehenengo taldekoe-kin ezin daiteke ezer egin, edo ezer gutxi, epe laburrean behintzat. Bestea ordea errekupea daitezke gune horretatik urrunduz gero"*. Elzok gune hori aipatzean 1.000 izan daitezkeela aipatu zuen. Errekuperazio horretan, *"bide kulturalari"* ematen diote garrantzia. Gazte hauek gizartean eta lan merkatuan sartzeari ere garrantzia ematen diote. Ertzaintzak arlo honetan *"sokonean lan tinko eta eraginkorra eta forman, berriz, diskreto"* egin beharko lukeela uste dute. Azkenik, epaileen *"konpromezurik eza"* salatu dute. Elzoren esanetan, oraindik *"inor ez dute delitu hauengatik zigortu"*.

TXINDOKI INSTITUTUKO ikasle talde bat (Tolosakoekin batera), urtarilaren 15ean, Aldintrans enpresaren aurrean izan ziren, Aldaiaren askatasuna eskatzeko egin zuten konzentrazioan. *"Lotsa edo beldurragatik etorri ez diren"* beste hainbat ordezkariaren zirela adirazi zuten.

PRESOEN ALDEKO ITXIALDIA egin zuten 26 lagunek, Ordiziako udaletxean urtarilaren 5ean. Senideak elkarteak antolatutako ekimen honen bitartez, Donostiako Artzain Onaren katedraleko gose grebalariei bere elkartasuna adierazi nahi izan zien. Errege egunean, eguerdian, enkatelada batekin eman zioten bukaera mobilizazioari.

TXINTXO ETA XEFE omendu zituzten joan zen larunbatean, Ordiziako Arboledan. 18 urte dira bi ordiziarrek hil zituztela.

BEASAINGO TUNELETAKO baten, Donostia alderanzkoarena, sapaia estaltzen duen tela asfaltikoaren zati bat erori egin zen joan zen asteen. Ondorioz, tunel zaharrenetik bidali zuten trafiko guztia, erretentzioak sortuz.





CHIAPAS Altxamenduaren bigarren urteurrenari buruzko hitzaldia izan zen urtarilaren 11n Ordiziako Barrenan, Komite Internazionalistak antolatutak. Octavio Morenok, 'La Guillotina' komiteko partaideak hitz egin zuen. Mende haseratik gaur arteko halako errepasoa egin zion Mexicoko historiari: 70etako krisialdi nazionala, 68ko sarraskia, pribatizazio prozesua, EEBBen eskuhartzea, ekonomia neoliberala, 60 milioi txiro, 600 hilketak eta bahiketa, arrazoï politikoak tarteko. Chiapasekoan zentratu zen jarraian. E.Z.L.N delakoaz mintzatu zen. Altxatu izanaren zergatiak azaldu zituen: kolonizazio eta lurgabetze edo espropiazioaren aurkako borroka; indigenen kultur nortasuna eta ondarea babestu beharra; nekazari eta txiroen eskaerak aldarrikatu beharra; demokrazia horizontalaren aldarrikapena; lurra, justizia eta askatasuna eskatzen zuten. E.Z.L.N. 'Organización civil' bilakatu da berriki. Armak utziko dituen edo ez ikusiko da.


KLEMENTE

ARIZTIMUÑO idiazabaldarrak, ONCE-ko kupoiak saltzen dituenak, 50 milioitako saria banatu zuen joan zen astean.

CAF, Inasmet teknologia zentruarekin batera, trenbideko garraioan erabiltzeko material erregaitza diseinatu, ekoiztu eta erabiltzeko kontratua sinatu dute. Datorren urtean ja-

rriko da martxan plana. Orain arte materialen errentagarritasuna eta auto-emendatzeko gaitasuna hartu dira kontuan. Hemendik aurrera, berriz, kearen dentsitatea, toxikotasuna, oxigenoaren indizea eta suaren zabaltze abiadura ere hartuko dira kontuan.

GOIERRITAR agertzen dira, Juan Agirrek argitaratu berri duen 'Épicos, pícaros y disonantes' liburuan: Martin Moxika ordiziarra, Juan Telleria musikari zegamarra eta Francisco Lazkano lazkaotarra. Nortzuk ziren goierritar hauek? Martin Moxika izan zen lehena, Juana la Loca Koroa baino eraginkorragoa zela esaten. Juan Telleriak 'Cara el sol' konposatu zuen. Eta Francisco Lazkano Velazquezen 'El niño de Vallecas' koadroan azaltzen da pintaturik. Agirreren liburu honetan, Gipuzkoako 12 pertsonaia azaltzen dira, tartean, Lope Agirre militar errebelatua, Urtain boxealaria eta Jorge Oteiza eskultore ezaguna.



JOKIN MUJICA itsasondotar txirrindularia dugu aurtengo ziklo kroseko Estatuko txapelduna. Era honetan, itsasondotarrak 4 titulu eskuratu ditu. 1980an juvenil mailako txapela jantzi zuen. 1993an profesional mailakoa lortu zuen Galizia aldean, 94an ere berea izan txapela. Mujikak adierazi duenez, beti motibatu izan dute txapelketek. Ziklo krosaz gain, mountain bikean ere ederki ibiltzen da eta Abraham Olano eta Tony Romingerrekin igandean izango du txapelketa bat.



LUIS GARMENDIA segurarra Sestao futbol taldetik Las Palmas aldera joan zaigu. Ustekabean harapatu du segurarra eta ekaina bitartean gutxienik, Kanariar irltako taldean aritu beharko du.



ALUSTIZA ETA IMAZ pelotari segurarrak finalik gabe geratu dira. Alustiza eta Errastik ligaxka bikaina egin bazuten ere, finalerdiko bi partiduak galdu zituzten Etxaniz eta Arretxeren aurka. Honela eskuz binakako txapelketa nagusitik kanpo geratu dira. Bigarren mailako txapelketan Xabier Imaz finalerdietaraino iritsi zen. Baina, berak eta Tolosa III.ak 22-18 galdu zuten Agirre eta Santiren aurka.

Artzain-jokoak gogoratuz

Direla 70 bat urte gure mendietako larreetan zebiltzan artaldeak oraingo aldean oso txikiak izaten omen ziren. Ehun ardikoak oso gutxi, gehienak 60tik 80 artekoak. Eta jakina, ardiak jetzi eta gazta egin behar zen sasoian ere, artzainak gaur baino atsedenaldi handiagoak izaten zituzten.

Askok eta askok, arrantxo prestatzeko, oiloak gobernatzeko eta baratzen zerbait aritzeko ere, emaztea ume-
txoekin mendiko txabolan beraiekin izaten zuten. Hau dela eta, kontu kontari aritzeko edo jolas saioen batzuk egiteko, mendiko leku jakinetan artzainak euren artean sarritan bildu ohi ziren.

Aspaldiko urtetan artzain askorekin egin ditudan solasaldietan kontatu dizkidaten joko batzuk aipatuko ditut gaur.

Aralar aldekoak behintzat, goizeko gaztak egin ondoren, 11:00ak edo 11:30ak arte biltzen ziren han eta hemen, gero bakoitza bere txabolara itzuli, bazkaldu eta siesta piska bat egiteko. Aitarekin joaten ziren mutikoak, haiek ere saioa bukatu, azken hitzak esan eta agurtzen ziren bitarteko tartetxoaz baliatuz egiten zituzten bere saiotxoak ere.

Asteazkenetan Ordiziara, igandetan mezatarra

Asteazkenetan ez ziren biltzen artzainak, Ordiziako perira jaistea nahiago izaten baitzuten gehienek. Eta larunbatetan ere ez, igandean herriko mezatarra joateko lanak aurreratu behar zituelako.

Zaldibiko artzainak, behin mezatarra jaitsiz gero, igandetan bere baserrian bazkaltzen zuten. Arratsaldean herriko, Arkaka aldeko eta Saturdi aldeko baserrietatik Aralar alderako bideek



Saltaarriak 3.25 metro pasatxo ditu luzeran eta abiadurarik hartu gabe, oinak elkarren ondoan jarrita, beste muturreraino egin behar zen salto.

bat egiten duten Aize-leku izeneko parajea, bateratsu biltzen ziren mendi aldera elkarrekin abiatuz.

Harrika

Arribiden gora zihoaztela, Gaitzola iturrira iristean eta ur trago on bat egitera gelditzen zirenean, bat ez bazen bestea hasiko zen, baina beti jolasten omen zuten harrika. Iturriaren gainean dagoen harkaitzaren koska jakin bateraino nork harria bota. Ahal zutenak gutxi omen ziren.

Pelotan

Euskal Herrian, artzantza izan den mendi askotako zelaietan, artzainek jokatu duten beste joko bat pelota izan da. Beraien aurrekoei entzunda, gaurko artzainak *pelotaleku* izeneko zelai-gune asko ezagutzen dituzte oraindik. Eta hegoaldean bezalaxe, baita iparraldean ere.

Orain dela hogeitau urte baino gehiago, Aralar mendiari buruzko lan baten barruan, Joxemiel Barandiaran jaunaren aginduz, artzainei *pelotaleku*etaz galdetu eta bere izen bereziekin hauetako hamabi, mendikate honetan bakarrik aurkitu nituen. Iparraldeko mendietan On Joxemielek berak aurkitu zituen aspaldi.

Pelotaleku hauek ordeka-gunetan egiten zituzten. Atxurrarekin lurlean arrastoak eginaz laukizuzen bat egiten zuten, eta erdian beste arrasto bat eginaz jokalaria bakoitzaren lekua bereizten zuten. Bost arrasto nagusienekin bakarrik baina, gaurko tenis jokoaren antzekoa, erdiko sarearen ordean arrastoa zuelarik.

Gehienetan binaka jokatu ohi zuten, eta alde bateko jokalariai pelota beste arrasto barruan bote egiteko moduan bota behar zuten. Orain bezalaxe, hau lortzen etzuenak galtzen zuen tanttoa. Partiduak, ia beti, 16 tantora jokatzen omen zituzten, eta euren arteko apostua *arrantxo* piskaren bat edo izaten omen zen. Garestita zenez gero, batzuetan ardoa ere bai.

Pelotak gaurkoak baino zerbait handixeagoak izaten omen ziren, eta artzainak eurak egindakoak noski. Nonbaitetik lortutako goma pusketa bat labanarekin zerbait borobildu eta haren gainetik galtzerdi zaharren baten artilea bilduz egiten zituzten pelotak. Kanpoko azala trapu puska batzuk elkar josiz egiten zen. Larruzkoak oso gutxi izaten omen ziren. Pelota hauek zelaian bote txikia egiten zuten, gehiena airean jokatu behar zen.

Gaurko artzain zaharrenek diotenez, Aralarren behintzat 1920. urte inguruan utzi omen zitzaion pelota jokoari. Artzain edadetu mordoakaren batek mendiko artzantzari utzi ziotenean.

Saltaarrie

Alotzako zelaian, pelota-lekuaren inguruan, hain ezaguna den *saltaarri* izeneko zutarria dago lurlean etzanda, bere izena artzainen jokoari zor diolarik.

Bere zabalera eta altuera nahiz eta handia ez izan, luzeran 3.25 metro pasatxo ditu.

Artzainak harri honekin egiten zuten jokoa, beraren gainetik salto egitea zen. Baina ez edozein moduz: mutur batean oinak elkarren ondoan zirela jarri eta abiadurarik hartu gabe, beste muturra igarotzerainoko saltoa egin. Hau egiten belauenetan ez da nolanahiko indarra behar. Geldi egon, belauinak okertu eta saltoa egin behar baita. Aspaldian hilda dagoen Zaldibiko artzain bat omen zen azkenaldiko saltoak egin zizkiona. Gaur egun ere, nahiz eta soinke-ta ariketetan gazte asko oso tre-beak izan, *saltaarrie* menderatuko lukeena ikustekoa izango litzateke.


Harri-jasotzaileak

Harriak jasotzen ere bere apustu eta saioak egin ohi zituzten gure artzainek. Horretarako erabiltzen zuten harri bat lehen aipatutako *saltaarriaren* inguruan omen zegoen. Bere pisua 4 arroa-takoa besterik ez zen (ia 50 kilo), baina berarekin egin behar zen lana, bi es-kuekin hartu eta harriak gorputza ikutu gabe bizkar gainera eramane. Beraz, lan hau ere ez zen erraza.

Beste harri handiago bat Goroskin-txo saroe azpiko txabolaren ondoan egoten omen zen. 11 arroa pisatzen omen zituen (ia 150 kilo), eta ahal zen moduan bizkar gainean jartzea omen zen jokoa.

Korrikalekue

Pagabeko saroearen inguruan, berriz, Arraska izeneko iturriaren eskubian,



Korrikalekuen inguruan, biraka, ikaragarritzko korrikaldiak egiten zituzten. Aurretik erabakitako bira kopurua nork azkarrago egin izaten zen lehiaketa.

korrikaleku izeneko ordeka-zulo bat dago. Bere erdian urubi zuloa du eta haren inguruan biraka egiten omen zituzten berehaldiko korrika saioak.

Igande arratsaldeetan gehienetan, musean saio batzuk egin ondoren, ibiltzen omen ziren korrika. Eta gororatzen diren azken aldiak, Igaratzako kantinan muturra zerbait berotu eta bakoitza bere txabola aldera zihoazene-koa da. Aurretik erabakitako hainbat bira nork azkarrago eman izaten zen lehiaketa.

Makilak zearkatzea

Beste joko polit bat *makilak zearkatzea* izenekoa zen. Hau oso aspalditik jokatzen zena omen zen. Bi artzainen artean jokatzekoa zen, eta edozein tokitan aurkitzen zirela ere, beti beraiekin erabiltzen duten artzain-makila luzea be-

terik ez zuten behar. Jakina de-nez, euskaldunok hain gure du-gun apusturako sena azaltzeko ez da askoren beharrik izaten.

Joko honetan aritzeko, bi artzainek elkarren ondoan jarri-rik, batek bere makila ahal zuen urrutiena botatzen zuen zelaian. Besteak, berriz, leku berdiner-a botatzen, lehenbizikoaren gainean zeharkatuta uzten saiatuko zen. Hau lortzen zuena zen irabazle, eta aldi bakoitzean txandaz aldatuz batek lortu arte honela jarraitzen zuten jokoa.

Bola-jokoan

Aizkorri aldeko Urbiko artzai-nen artean, orain artean aipatu ditudan jokoetan aritzen zirela gogoratzen zenik ez nuen aurki-tu. Baina larre haietako artzain gehienak Idiazabal, Segura, Zegama eta Zeraingoak izanik, bolalekua non zegoen ondo asko zekiten gehienek. Herri hauetan bola-jokoak gaur arte-raino iraun duen zaletasunak badu bere jatorria.

Gaur egun *bolaleku gañe* izenarekin ezagutzen den zelai luzea Laskolatza saroearen goikaldean dago, baina nahiz eta bere aurrekoek bolatan jokatzen zutela jakin, gaur 75 urte dituzten artzainak Urbian ez dira bolatan aritu.

Beste gauza asko bezala, artzantza ere aldatu egin da, eta gaurko artzainak dituen artaldeak askoz ere handiagoak izanik, lehen ez bezalako egin beharrak dituzte, eta jolaserako asti gutxi.

Erabat ahaztu baino lehen behinik behin, urtean zehar entzundakoak jaso nahi izan ditut.

 **Jose txo Zufiaurre**

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN



- Mediku akupuntorea
- Pisua-ren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

Txotxetik aukera zabala bertan

Iaz baino gehiago gara. Iaz 11 eta aurten 13 sagardotegi ditugu Goierri aldean. Aurtengo sagardoak iazkoak baino graduren bat edo beste gehiago omen du. Eta geroztik eta jende gehiago gelditzen da Goierriko sagardotegietan.

Honelaixe labur genezake aurtengo sagardo denboraldia. San Sebastian inguru honetan hasi eta apirilaren bukaerarte izaten da denboraldi ofiziala. Hala ere, sagardotegi bakoitzaren esku egoten da noiz ireki edo noiz itxi. Gainera, gero eta gehiago dira sagardo denboraldiaz gain, urte guztian jatetxe bezala irekita edukitzen dituztenak. "Sagardotegia jartzeak inbertsio handia eskatzen du. Sagardo denboraldia 3 hilabetekoa izaten da eta horrekin ez da amortizatzen. Orduan, beste irteera bat ematen zaio urte osoan, jatetxearen irtenbidea hain zuzen ere", esan digute sagardogiteetako nagusiek.

Gero eta hobe

Iazko uda lehorra izan zen oso eta sagarrak azukre gehiago omen zuen. Gauzak



honela, aurtengo sagardoa "gradu gehiagorekin dator, fuerteagoa", esan digu Urbitarteko nagusiak. "Sagardoa ona dagoela esaten dute. Behealdean (Astigarraga aldean), ordea, arazotan dabilta. Sagardoa egiten ari zirenean hego haizea izan baitzen behealde hartan eta lehenago fermentatzen da", argitu du Otatzakoak. "Sagardo polita da aurtengoa. Esan daiteke gradu gehiago dituela, jendea behintzat asko nabari izaten zaio sagardoaren eragina", adierazi digu Olagiko etxe-koandreak. Kortakoaren arabera, be-

rriz, "aurtengo sagardoa gorputz gehiagorekin dator. Iaz Frantziako sagarra erabili genuen eta mikatzagoa da. Aurten bertakoa eta Galiziakoa erabili dugu eta usainean bakarrik nabari zaio hobe dela, sanoagoa".

Beheko sagardoekin (Astigarraga aldekoekin) kalitate mailan gero eta ezberdintasun gutxiago dagoela esaten duenik ere bada. "Teknika aldetik asko berdindu baitira", Txertakadikoaren hitzetan. Kattalingoak gaineratu duenez, "sagardoa gero eta hobe egiten da. Etimologikoki gero eta lan gehiago egiten da, kontrol handiagoa izaten da".

Hori bai, sagardoa azkarxeago etorri denez, botilaratu ere azkarrago egin beharko dute.

Gero eta gehiago

Gero eta gehiago dira bai, Goierriko sagardotegietan gelditzen direnak. Iaz ederki lan egin zuten sagardotegiek eta aurten, sagardo denboraldia hasi duten lekuetan, jendea gogoz hasi da. Azken batean, kalitatea eta aukera eskaintzen baitute hemengo sagardotegiek. Prezioetan ere bada alderik. Sarrera 500-600 pezeta kobratzen da. Nañarrikoaren ustez, gehiegizkoa da, beheko sagardotegietan bezala, sarrera

Gozatzeko.



700 pezeta kobratzea.

Dena den, goierritarak hain sagardozaleak ez garelako esan du Otatzako etxekoandreak. Sagardotegira joan eta ardoa eskatzen dutenak asko omen dira. Hala ere, ohitura zabaltzen ari da.

Berrikuntzak

Altzagako Olagi eta Gaintzako Oteñe dira berrietan berrienak. Olagin obra ugari egin dituzte sagardotegia puntu-puntuan jartzeko. Berogailua ere jarri dute, goxo-goxo, sagardoa edan eta ondo jan ahal izateko. Oteñen, berriz, jattetxeari, sagardotegia gehitu diote. Kupel pare bat jarri eta txotxetik aukera eskaintzen dute. Zaldibiko Txertakadik, berriz, jabe berria du. Lekua hobeto aprobetxatu dute kupelak hobeto antolatuta eta 40 bat lagun gehiagorentzako lekua egokitu dute.

Ataungo Urbitartek, aparkalekua egin du errekatxoaren bestaldean eta litro gehiago egin ditu. Zeraingo Otatzan, sukaldea handitu eta parrila kanpoalderantzat egin duten etxetxoan jarri dute. Gabiriako Kortak berogailua jarri du, altu samar dagoenez hotza egiten duela eta.

Ikaztegiako Begiristainek eta Abaltzisketako Zalbidek dolare berriak --hidraulikoak-- jarri dituzte. Horretarako eraikuntza berriak egin behar izan dituzte.



Noiztik nora

Sagardo denboraldia ofizialki San Sebastian eguna baino astebete lehenago hasten da. Baina bakoitzak berea ahalari egiten dio kasu. Alfabetoari jarraituz, hona hemen sagardotegi bakoitzaren berri zehatza: **Aulia:** Santa Luzi egunean ireki eta maiatzaren bukaera arte egongo da zabalik. **Begiristain:** Urtarrilaren 5etik apirilaren bukaera arte. **Etxe-Zuri:** Urte osoan. Aurtengo sagardo berria abenduaren hasieratik dago dastatzeko aukeran. **Kattalin:** San Sebastianetatik Aste Santuak bitartean. Luzatu edo ez, bezeroak esango du. **Korta:** Abenduaren 19tik maiatza ingurura arte. **Ñañarri:** Urte osoan. **Olagi:** Abenduaren 4an inauguratu zuten eta urte bukaerarte izango da sagardoa

dastatzeko aukera. **Otatz:** Abenduaren 7an ireki zuten eta San Inazio bitartean egongo da zabalik. **Txertakadi:** Abenduaren 15az geroztik dago irekita. Urte osoan egongo da irekita eta txotxetik edateko aukera ahalik eta gehien luzatzen saiatuko dira. **Tximista:** Errege egunetik sagardoak ematen duen bitartean egongo da zabalik. Iaz herriko jaiak arte egon zen irekita. **Urbitarte:** Urtarrilaren 12tik apirilaren bukaerarte izango da sagardo denboraldia. **Zalbide:** Urtarrilaren 19tik urriaren bukaerarte egongo da irekita.

Sagardotegira joan aurretik aurrez enkargatzea komeni izaten da. Bai bazkarietarako eta bai afarietarako. Beraz, on egin!

GOIERRIKO SAGARDOTEGIAK

AULIA.....☎ 80 60 66

Legorreta

BEGIRISTAIN ...☎ 65 28 37

Ikaztegieta

ETXE-ZURI.....☎ 88 20 49

Olaberria

KATTALIN.....☎ 88 92 52

Beasain

KORTA☎ 88 71 86

Gabiria

ÑAÑARRI☎ 65 40 05

Abaltzisketa

OLAGI☎ 88 77 26

Altzaga

OTATZA☎ 80 17 57

Zerain

OTENĖ☎ 88 98 48

Gaintza

TXERTAKADI☎ 16 13 59

Zaldibia

TXIMISTA.....☎ 88 11 28

Ordizia

URBITARTE☎ 18 01 19

Ataun

ZALBIDE☎ 65 21 76

Abaltzisketa

IDIAZABAL

Herri krosa datorren igandean

Urtea hasiko orduko, hementxe ditugu San Blas jaiak. Bi asteburutan izango dira eta urtarilaren 28rako, antolatu du Idiazabalgo Kirol Elkartek, Herri krosaren XVI. edizioa.

Goizeko 11:00etan hasita, era honetan izango dira lasterketak: neska eta mutil benjaminen 500 m. egin beharko dituzte; neska alebiren 1.000 m. eta mutil alebiren 1.100 m.; neska infantilek 1.100 m. eta mutil infantilek 1.900 m..

Eguerdiko 12:00etan, lasterketa bakarria izango da. Neska kadeteek (2 km.), mutil kadeteek (4 km.) eta helduek hartuko dute parte. Helduetan, gizonetakoek, 10 km. egin beharko dituzte eta emakumeetakoek 4 km.

Izena emateko eguna, irteera baino ordu laurden bat lehenago amaituko da. Lasterketa bukatzen duten haur guztiek, domina jasoko dute. Kadete eta helduek, berriz, diploma bana.

Gurutze Gorriak Kros honetan bere laguntza eta zerbitzuak eskainiko ditu. Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko gerta litezkeen istripuen erantzukizunik.



Hala ere, kirola egitea hain gustuko ez dutenentzat bada besterik. Hona hemen egitaraua:

Urtarrilak 27, larunbata:

10:00etatik eguerdierarte eta arratsalde partean: Tiroa Guardi aldean.

16:00etan: Herriko Txirrindulari txapelketa nagusia.

pelketa nagusia.

18:00etan: Futbito txapelketako azkenaurreko partiduak Futbito pistan.

22:00etan: Antzerki ikuskizuna: Ttanttaka taldearen 'Umekeriak' antzezlanaren Igarondo pilotalekuan.

23:30tik 03:30ra: Drindots taldea.

Urtarrilak 28, igandea:

10:00etan: XI. Xake txapelketa Kultur Etxean.

11:00etan: Idiazabalgo XVI. Herri krosa.

16:30ean: Umeen dandaborrada.

18:30ean: Trikitilari gazteen jaialdia Igarondo pilotalekuan. Aurretik kalejiran ibiliko dira trikitilariak herrian zehar.

Bestalde, gogoratu, Kultur Etxean, herritarrek urtean zehar egindako eskulanak ikusgai egongo direla: zeramika, taila, harilanak. Era berean, datorren urteko jaietako programarako argazkiak aukeratzeko lehiaketa antolatuko da hurrengo urtean ere, eta aurtengo jaietako argazki edo diapositibak aukeratzeko dira.

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

**OTEÑE
ERRETEGIA**
Orain sagardoa txotxetik!

Larraitz bidea

GAINTZA

88 98 48



Jose Ramon Soroizen "Umekeriak" Arerian

Eguberrietako jai giroa amaitu bada ere, datozen 4 hilabeteek giro berezia ekarriko digute. Lazkao, Ordiza eta Beasaingo udalek 'Antzerki Garaia' antolatu dute Euskadiko Antzerki sarea, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa fundazioarekin batera.

Hilaren 11n Tanttaka taldeak Raymond Cousse egilearen 'Umekeriak' lana eskeiniko du Areria Antzokian. Umore berezi batetan, 'haur' batek bere nekazal munduko esperientziak gogoratzen ditu narrazio honetan. Mota guztietako esperientziak nahasten dira gizatasunari buruzko batzuetan barregarri eta besteetan krudela den hausnarketa batetan.

Drama eta umorea harremanetan jartzeko ahalmena erakutsiko digute Tanttaka taldekoek ostiralean.

Otsailaren 16an, berriz, In Fraganti taldea izango dugu David Mamet estatubatuarrek idatzitako 'Okanna' lanaren egokitzen antzeztan. Unibertsitateko irakasle eta ikasle baten arteko tirabira izango da drama honen ardatz nagusia.

Bi lanak Areria Antzokian izango dira, 22:15ean.

Guztira 10 antzezlan eskeiniko dira Lazkao, Beasain eta Ordizian. Sarrerak 600 pezetakoak izango dira. Hala ere, 4 hilabetetarako abonua 400 pezetan eskuratu ahal izango duzue. 10 sarrera

baino gehiago eskuratu nahi duten kultur talde, ikastetxe, etab.ek, bestalde, 400 pezetako sarrera berezia izango dute.

Euskara taldea

Herrian euskara talde bat martxan jartzeko asmotan dabilta azken aldi honetan. Lehendik ere bilera bat egin zuten eta jende gehiagori jakinarazi eta beste bat egitekotan geratu ziren. Bilera ostiral honetan, urtarrilak 19, iluntzeko zazpietan Udaletxeko areto nagusian izango da. Interesatuta dauden guztientzat deia zabaldua dago.

 Iraida Martin

GABIRIA

Ostiralean hasiko da "txotx" garaia Kortarenean

Iazko urtarrilaren 18an inauguratu zen "Korta" sagardotegia eta aurten ere egun horretan irekiko dute txotxaren garaia. Hori dela eta, gaueko bederatzietan afaria izango da bertsolari eta guzti eta bertakoen esanetan komenigarria litzateke joateko asmoa dutenek aurrez izena ematea.

Sagardoa Astigarragatik ekarri zuten udazken hasieran eta bertako upeletan aritu da ontzen orain arte. Upelak nahiko bereziak direnez, gastatu ahala berriro betetzeko asmoa dute urte osoan sagardotegia irekita edukitzea.

Lekuari dagokionez, 80 edo 100 lagun nahiko erraz sartu daitezke eta aurtengoan berogailua ere jarri dute jendeak hotzik pasa ez dezan.



Herriko zenbait lagun sagardoa dastatzen.

Bi ospakizun apiril aldean

Aurten beteko dira 25 urte Gabiriako "Goruntz" dantza taldea sortu zela eta, horretaz gain, Osinalde elkarte gazteen bertsolari txapelketa antolatzen hasi zela ere aurten izango dira 25 urte. Bi ospakizun horiek direla eta, zenbait batzorde lanean ari dira jadanik gai horien inguruan antolatuko diren ekintzak prestatzeko.

"Makilari" aldizkariari dagokionez, hurrengo alea bi gai horien ingurukoa izango da eta hil honen 27an arratsaldeko 4.30etan bilera izango da Kultur Etxean prestatze lanari ekiteko.

 Gabino Murua

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 **ORDIZIA**
☎ 16 07 07 **OLABERRIA**

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN


Juanito Cia mendizaletasuna bultzatuz

Aitzgorri Mendizale Elkartearen sorrera aurreragokoa izan arren, 1962ko Gabon Zaharrean Arana kaleko aretoan finkatu zen behin betirako. Ordurarte elkarteak bere bilerak Agirre tabernan ospatzen zituen. Baina behin areto finkoa lortu ondoren, bazkide kopurua igo egin zen. Juanito Cia garai hartan egin zen bazkide eta mendizaletasunaren alde lan asko egin ondoren, bazkide eta erretiratzeko garaia iritsi zaiola dio, hala ere ez du bere lankidetzaren behin betirako utziko. Horrenbeste urtez Mendizaleko bazkide izan arren, 32 urte pasa behar izan dira presidente izateko. Postu hori utzi berria du, urten behin elkartearen zuzendaritza aldatzen baita, baina bere aztarnak bertan utzi ditu. 33 urtean berrikuntza handirik jasan ez duen aretoa era bat berritua geratu da: sukalde berria eta zenbait moldaketa.

G.- Zer gogoratzen duzu elkartearen hasieraz?

E.- Elkartea sortu zenean helduentzako irteerak bakarrik antolatzen ziren, lagun talde baten modura. Zortzi urte inguru beranduago, Pedrosa presidente zegoelarik, haur taldeen irteerak antolatzen hasi ziren, eta orduan hasi zen gaur egungo dinamika martxan. Garai hartan ehun haur baino gehiagoko taldeak irteten ginen mendira, orain baino askoz ere haur gehiago ibiltzen ziren gurekin mendian. Hori normala da, orduan ez baitzegoen gaur egun dagoen kirol aukera zabala. Orain irteera bakoitzeko 30 haur inguru biltzen dira, haurrak beste kirol batzutan ibiltzen dira eta horren barnean aipatu behar da eskalada. Orduan gainera ez zen asko erabiltzen autobusa, gaur egun autobusez irteera gehiago egiten dira baina horrek ez du esan nahi orduan ez ginela urrutixeagoko mendietara joaten. Nik ez dut nahi haurrekin dagoen mugimendu hau galtzea eta horretarako jende gaztea behar da guk eginiko lanarekin aurrera jarraitzeko.

G.- Horrenbeste urtetan mendian ibiltzeak eta gainera haurrekin, la-



rrialdi momenturen bat izan al duzue inoiz?

E.- Ez, mendi istripurik ez dugu inoiz eduki, gehienera haurrak jolasean zebiltzan bitartean eginiko zauriren bat edo beste. Behin gogoratzen naiz, San Adriango kobaren atzean dagoen zelaian futboleko genbiltzala haur batek txorkatila okertu zuela. Hura besoetan hartu eta aterpera eraman beharra izan genuen. Mendian arrisku handiak daude, baina kontuz ibiliz gero ez dago inongo arazorik.

G.- Zeintzu dira haurrei gehien gustatzen zaizkien irteerak?

E.- Dudarik gabe, gaua etxetik kanpo

pasatzekoak. Edozein akanpada egiten dugunean edo aterpe batera joaten garenean. Bi egunetako irteeratako bat gogoratzen dut, Belaguara joan ginen Julio Laidalga zena, Juanito Caballero eta ni. 35 haur eraman genituen eta gauean Juliok eta Juanitok Isabara jeitsi beharra izan zuten. Ni bakarrik gelditu nintzen haur guztiekin eta horien artean nire seme-alabak zeuden. Izugarritzko builak ateratzen ari ziren eta aterpeko zaindari zegoen Valentinek eta nik ez genuen lortzen haurrak lo hartzea. Azkenean nire semea zaplazteko bat eman behar izan nion eta orduan denak ixildu ziren. Valentini asko gustatzen

zitzaizkien haurrak erratzakin bildurtzea eta han oso ondo pasatzen genuen.

G.- Zer esango zenieke haurrei Mendizale Elkartearekin batera mendira joan daitezen?

E.- Nik ezagunen haurrak kalean ikusten ditudanean, mendia gustatzen zaien galdetzen diet. Batzuk baietz esaten dute eta beste batzuk ezetz. Pena handia emango zidan ohitura hori ez zabaltzea eta hemengo giroa oso ona dela esango nien, oso ondo pasatzen dela, beste edozein kirolekin ibitzea bezala dela eta leku asko ezagutzen direla.

Izaskun Salazar

Antzizar kiroldegia

Urtarrilaren 15ean martxan jarri ditu Antzizar kiroldegia hainbat eta hainbat ikastaro. Bizia-Osasunaren berri zehatzagoa 'deialdiak' atalean duzu. Gainontzean, hona hemen beste ikastaroen berri: programa integrala; mantenuko gimnasia (goizeko 9etan eta 15:00etan eta 19:00etan); aerobika (goizeko 9:15etan eta 15:00etan eta 19:00etan); gihar gimnasia (egunero 18:30tik aurrera); haurdun igeriketa (eguerdian); igeriketa ikastaroak (haurrak 17:00etatik aurrera eta helduak goizean eta iluntzean); eta sho-

rinji kenpoa (huarrak 19:00etan eta helduak 20:00etan).

Olerki lehiaketa

Arrigorriagako Udalak antolatutako 3. Roberto Albandoz olerki txapelketan bi beasaindar izan dira sarituak. 14 urte bitartekoen mailan, Izar Sarriegik akzesita lortu du eta 14-16 urte bitartekoen mailan, Ekaitz Goikoe-txeak lehenengo saria eskuratu du. Guztira 72 lan aurkeztu ziren lehiaketara eta kalitatea handia izan zen epaimahaikideen arabera.

Goierriko euskara taldeen ihardunaldia

Hitarok antolatuta Goierriko euskara taldeen I.go Ihardunaldia egingo da urtarilaren 20an. Bertan, Hitarokoez gain, Beasaingo Ai Geala eta Lazkaoko Goierriko Euskal Eskolako hainbat kide ere bilduko da, euskararekin loturiko zenbait gairi buruzko eztabaida bultzatu eta sortu asmoz.

Ihardunaldia Kutxak Kale Nagusian duen batzar aretoan egingo da, esan bezela larunbatean hilak 20ean, goizeko 10etatik aurrera. Bertan Iñaki Arruti Lasarteko Udaleko Euskara teknikaria, udalen eta herri erakundeentzako funtzioez arituko da. Ondoren, eguerdi partera, Ordizia, Beasain eta Lazkaoko euskara taldeak beren sorrera, oraina eta geroa azaltzen ahaleginduko dira. Amaitzeko, nola ez, bazkaria izango dute bertaratzen diren euskalzale guztiek.

Enparantzako lanei buruz

Gogoratuko duzue azaroan hasi ziren Enparantza Nagusiko sabaiko berritze lanak. Lanek aurrera jarraitzen duten bitartean arazoak begibistakoak dira, ordea. Izan ere lanen ardua dutenek ez dute itxuteak ekiditeko inolako neurririk hartu eta orain ohizkoa bihurtu zaigu, jendea erosketak egitera doanean aterkia irekita duela ikustea. Eta saltzaileak toldoak ipinita. Hau gutxi balitz, gainera, harri puskak ere erortzen dira noiznahi, enparantzan barrena dabiltzenak arriskuan jarritz.

Beraz, ibiltari kontuz enparantzan barrena zoazenean eta ea lanak ahalik eta azkarren amaitzen dituzten, bitartean segurtasun neurri minimo ba-



tzuk hartuz, noski, sekula ez baita beranduegi izaten.

Erakundeei dirulaguntzak

Udalak dirulaguntzak banatu berri ditu erakunde desberdinen artean, herrialde atzeratuetan aurrerakuntza programak martxan jartzeko helburuarekin. Honetarako Ordiziak 5 milioiko aurrekontua du eta besteak beste honetarako balioko du diru kopuru honek: Ekuadorren kooperatiba bat sortzeko, Panamako herri batean azpiegiturak hobetzeko, El Salvadorren portu bat egiteko eta bertako elkarte bati laguntzeko, eta azkenik Errepublika Dominikarrean ikasketa industrialak burutzeko materialen erosketak ahalbidetuko du diru honek.

Gazte bulegoa

Dagoeneko jakingo duzue Ba- rrena azpian kokatua dago gazteen-

tzako informazio bulegoa. Honi buruz esan geroz eta jende gehiago hurbiltzen dela hainbat informazio- ren eske. Hemendik gogoratu besterik ez, ze ordutik ze ordura dagoen publikoarentzako irekita: asteartetatik ostiralera arratsaldeko 5etatik 7etara eta larunbatetan goizeko 10etatik ordubatera bitartean.

Txirrindulari proba zorioneko

Zorioneko bi ikuspegitik. Batetik azken urteotan izan dituen arazo ekonomikoak alde batera uzteko aukera duelako aurten, dagoeneko 300 bazkide babesle lortu dituelako eta bestetik UCik (Union Ciclista Internacional) Villafrancako txirrindulari probak mailaz igotzeko aukera duela adierazi duelako.

 Aitor Calvillo



ZAINDU
Fisioterapia Gabinetea

Domingo Unanue, 3

☎ 16 19 12

ORDIZIA

Ziatikak, lunbalgiak,
arnas aparatuko ara-
zoak, sorbaldako ara-
zoak, kirol lesioak...



ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA



San Sebastiango erretaula barroko honen misterioa, beste inon azaltzen ez diren 2 aingeru beltzak, eta aureola beltzez inguratutako beste zortziak dira.

San Sebastian ermittako meza

San Sebastian eguneko hurrengo igande, urtarilaren 21ean, eguerdiko 12,30ean izango da elizkizuna San Sebastiango ermittan. Meza, auzoan hildakoen alde emango da, eta ondoren, urteroko hamaiketako egingo da ermita inguruan.

Iaz, auzolanean, teilatua berritu, leiho-harriak bistaratu, pareta-zuloak tapatu eta ermita zurutu zituzten. Aurtan, erretaulako irudiei pipiaren kontrako baksolizazio tratamendua eman zaie, Billabonako enpresa espezialdu batean. Erretaulari, bertan eman zaio tratamendua, eta libratu ezin izan diren aingeru beltzei ere bai, nahiz eta hauek egoera askoz hobean dauden. Honez gain, ermita zaintzeaz arduratzen den Txomin Garmendiaren Gaintzako jaiotetxean egindako 14 kalbario gurutze berri jarri dira, batzuk falta, eta beste batzuk hondatuak zeudelako.

Segurarrak, Jaiotza Txapelketan

Zeraingo Udal eta Kultur Etxeak antolatutako Goierriko 1. go Jaiotza Txapelketara aurkeztu ziren 21 jaiotzetatik, segurarrak 3 sari jaso dituzte:

* 6-10 urte bitartekoetan, Aintzane Intxaustik, Mikel Garziandiak, Alaitz Imazek, Naiara Oiarbidek, Asier Izetak, Eztitxu Telleriak, Ane Arrietak, Gorka Gerrikok, Maitane Urkiolak, Eneko Montesek, Manu Errezolak, Tamara Nikolek, Gorka Mansok, Eider Lardizabalek, Jon Agirrek, Joanes Imazek eta Amaia Ferreirak osatutako "Poxpolin" taldea 3. geratu zen.

* 11-14 urte bitartekoetan, Jon Antiak, Garikoitz Oiarbidek, Enetz Olanok, Sebastian Telleriak, Iker Agirrezabalek, Iker Fernandezek, Xabier Urdangarinek eta Agustin Agirrek osatutako "Itxas-Izar"

taldea 1. go geratu zen.

* 15-18 urte bitartekoetan, Xabier Areizaga 3. geratu zen.

Dantza sueltoko ikastaroa

Elorri Kultur Elkartek antolatu duen II. Dantza Sueltoko ikastaroa martxan da. Iaz bezalaxe, Baratze Pelotalekuan izango dira saioak, eta San Juanak alderarte iraungo dute. Dagoeneko 40 lagunetik gora daude izena emanda. Momen-tuz bi talde osatu dira:

* 7-11 urte bitartekoak, ostiraletan, 18:00etatik 19:00etara. Talde hau urtarilaren 12an hasi zen.

* 15 urtetik gorakoak, asteartetan, 18:00etatik 19:00etara. Hauek, urtarilaren 9an hasi ziren.

Beste talderik sortuko balitz, partaideekin hitz egingo litzateke, ordua eta eguna erabakitzeko. Izena Elorripe tabernan.

Euskara ikastaroa irakasleentzat

Goierriko Euskal Eskolak, AEKk eta Maizpidek antolatuta, 1995eko irailean hasi ziren, Goierriko ikastetxeetako irakasleei zuzendutako euskara klaseak. Kezkak eta zailtasunak argituz, eta Euskaltzaindiaren erabaki berriak ezagutaraziz, hizkuntza hobetu eta eguneratzea da helburua. Klaseak programatzeaz eta emateaz AEK eta Maizpide arduratuko dira. Dagoeneko, Goierriko 6 ikastetxe aritu dira klaseetan.

Ikastaroak 20 ordu iraungo du, eta 10 irakasle hasiko dira, klaseak Laiotz Herri Eskolan bertan emanez, astelehene-tan 17:00etatik 19:00etara, urtarilaren 29an hasita apirilaren 1era arte.

Pelota

Klubon Arteko VI. Euskal Ligan, urtarilaren 19an, gaueko 10:00etan, ondorengo partidua izango dira Baratze Pelotalekuan:

* Juniorrak: Iñigo Otegik eta Jon Ander Honbrek, Zornotzakoen kontra jokatu dute.

* Seniorrak: Iñaki Artolak eta Ibon Etxeberriak, Mañariakoen kontra.

Futbola

Pasa den asteburuko emaitzak:

* Rejonak: Urkiri 4-0 irabazi ondoren, 1. go jarraitzen dute sailkapenean.

* Jubenilak: Gazteak taldeari 3-2 irabazita, 1. go daude.



Santubi aldera doan Iturriberriko kaltzada txukundu dute, eta egoera honetan aurkitzen da, bertatik pasatzeko moduan.

* Infantilak: Donostian 0-6 irabazi ondoren, 1. go postuan bukatu dute ligaren 1. go fasea. Maila berean 4 multzo zeudenez, orain, multzo bakoitzeko 2 lehenengo arteko norgehiagoko jokatu da. 8 horietatik 4, ohorezko ligara igoko dira.

* Kadeteak: Billabonari 2-0 irabazita 2. jarraitzen dute Real Sociedaden atzetik.

Aste honetan etxean:

* Jubenilak: zapatuan, 20an, 15:30ean, Amara Berriren kontra.

* Kadeteak: zapatuan, 20an, 11:00etan, Real Sociedaden kontra.

Luixito U.D. Las Palmasera

Luixito Garmendia, "Luziano", Sestao Sporten 2. denboraldia zeramala, U.D. Las Palmasek fitxatu du aurtengo denboraldirako, nahiz eta beste baterako aukera izango duen. Talde kanariarra, 2. B mailako 1. go multzoan ari da, eta 2. A mailara igotzeko faboritoenetakoa da.

Kosta zaiok!

"Aldeizak emendik! Esanda neok premio itxurazkon bat ekarri arte, ez tiala geio artuko!". Makiña bat aldiz aditu behar izan ditu Klemente Ariztimuñok, "Muño"k, halako komentarioak. Pasa den urtarilaren 10ean, orde, berak saldutako 20.067 zenbakidun kupoi izan zen ONCEn lehen saria. 20 kupoi zituenez saltzeko, eta bakoitzeko 2 kilo t' erdi banatu ditu.

 Joseba Telleria

Eliza eta enpresei buruzko datuak

Jose Mari Lasa, Kutxako zuzendariari 2. orrian egin diogun elkarrizketan emandako datuak dira. Leku ezagatik eta datuak interesgarriak direnez, hona hemen Eliza eta enpresen inguruko datuak.

San Salvador eliza hondamen egoeran dagoela esan beharrik ez dago. Guibert arkitektoak egindako ikerketa baten arabera, egitura konpontzeak 34 milioiko aurrekontua izango luke. Aurrekontu honen % 70a Diputazioak subentzionatuko luke eta gainontzekoa aportazioek osatuko lukeela uste du Jose Marik, hala nola, Udalak, Gortzaindegiak, parrokiak berak eta eliztarrek.

Elizarekin lotuta dago elizako zinema. Udalak dauka momentu honetan bere esplotazioa, otsailaren 2an bukatzen da horren kontratua, baina irailera arte luzatu da, elizaren konponketaren aurrekontua ikusi artean. Momentu honetan dohainik botatzen dira filmeak, bideoaren bitartez, zine proiektuak.



torea hondatuta baitago. Elizkizunetarako ere erabiltzen da zinema.

Eliz kontuekin jarraituz, Guadalupe ermittaren zorua konpontzen ari dira eta 3 milioiko aurrekontua du.

Enpresaz enpresa

Herrian 6 enpresa nagusi ditugu. Eta Lasak egin digun datu bilketaren arabera, hona hemen zenbat langile eta zenbat legorretarrek diharduten lanean bertako enpresetan.

- Etxezarreta Papelera: 72 langile dauzke guztira eta 54 dira herriarrak.

- Zuekin: 19 langileetatik 2 dira legorretarrak.

- Eredu kooperatiba: 44 bazkide ditugu guztira eta inor ere ez da Legorretakoa. Kontutan izan behar da kooperatiba hau Ikaztegiaren sortu zela 1967an. Batz bestea 80-84 langile ditu.

- Ederfil kooperatiba: 52 langileetatik % 96 dira bazkideak. 9 legorretarrak dira eta gainontzekoak goierritarak.

- Prodema, S.A: 31tik 20 langile dira herrikoak.

- Udalar Papelera: (Goierrri bezala) 22 langile ditu eta 7 dira legorretarrak.

ZALDIBIA

Futbitoko neskak Gipuzkoako onenen artean

Joan den denboralditik, neskez osaturiko futbito-ekipoa dauka Zaldibiak. Debutean edo lehengo denboraldian oso paper ona egin dute, beren taldean bigarren eta guztira laugarren geratu direlarik, Elkarre Autonomoko ligan parte hartu ahal izateko oso gutxiaren faltan.

Momentu honetan "Udaberri Trofeo" jokatzen ari dira eta, hain zuzen ere, lehenengo doaz, Donostiako Al-

tzarekin berdindurik. Liga honetan lehen lau postuetan geratzen direnen artean jokatuko dira final-erdia eta finala, eta, noski, finalera iristea espero dute. Talde honetaz informazio gehiago kiroletako horrietan daukazu.

Haurrak irakurtzen

Zaldibiko Lardizabal Herri Eskolak eta udal liburutegiak elkar-lanean

antolatuz, hil honen 23an, arratsaldeko 18:00etan, eskolako bilera-gelara, oso hitzaldi interesgarria izango da, OHoko hirugarren mailatik gorako umeen gurasoentzat, honako gai honen inguruan: "Zure haurrak irakurtzen al du?". Nere Alzola, Eskoriatzako Magisteritza Eskolako irakaslea, izango da hizlariaren gidari.

 **Rufino Iraola**



GOITGI
OKINDEGI
Ogigintzan
onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA - 160501

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA - 880737

- ♦ Egurrezko labeak egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA



Jexux Goikoetxea, Eskolako zuzendaria.

Eskolan 12 urterarte

Ezezko borobila jaso du Herriko Eskolak. Datorren kurtsoetik aurrera, 12 urtez gorako eskolumeek herritik kanpora joan beharko dute.

Hezkuntza Delegaziotik argi eta garbi esan da, 14 urterarte ezin dela mantendu. Erantzun berbera jaso dute Goierriko beste Herri-Eskola guztiek. Beraz, Beasaingo Loinazpe Ikastetxera joan beharko dute, publikoan jarraitu nahi badute behintzat. Eta han ze eskola aurkituko dute? Hori da orain kezka nagusia.

Herriko Eskolak zorrotz eskatu du, D eredua, euskara hutsezkoa izan behar duela. Gerta liteke, ordea, D eta B (euskara eta gaztelera) eredukoa izatea. Eta Loinazpen ze edadetako ikasleak izango dira? Bi aukera daude: 12 urtetik 16ra izatea edota 12tik 18ra. Herriko-Eskolak 16ra bitartean izatea eskatuko du, 12 urteko ume bat 19 urteko neska-mutilekin nahastuta ibiltzea kome-nigarri ikusten ez delako.

Beste puntu batzuk ere badaude oraingorik argitzeko. Irakasleen perfilak, hizkuntz perfilak etabar.

Buruko eta tripako-min asko sortu da. Agorretik aurrera, 23 ume beherako bidean izango dira. Momentuz alfer-alferrik izan dira Siadecoren azterketa, Herri-Eskolen presioa eta udalena.

Eskola mapa berria urtarilaren 23an onartuko du seguruenik Jaurlaritzak.

22-GOIERRITARRA

Zalantzarik gabe, herri txikiak dira berriro galtzaile eta puska ederra galduko du gureak ere.

Ur lantegia

Hizpide handia jarri du herrian. Aspaldiko kontua da baina orain badirudi serio doala. Asmoa denez, Andurio S.L. izeneko enpresak ura botilan sartzeko lantegia jarri nahi du Imatzene baserritik goraxeago. Ura Andurio parajetik ekarri behar da eta leku hori Lazkaoko partean dago. Ura, berriz, hiru iturrietatik hartu behar da eta Zaldibiko Udalak esan duenez, ur horiek hartuz Zaldibiko Amundarain errekek ur gutxiago izango du. Zaldibiko Udalak alegazioak aurkeztu ditu 'Confederación Hidrográfica del Norte de España' deritzan erakundean. Erakunde honek eman behar ditu baime-nak.

Beraz, alde asko ditu gai honek. Gauzak oraintxe dauden bezala, Zaldibiko Udalak alegazioak erretiratzin ez dituen bitartean zaila izango da aurrera jarraitzea. Konponbidea, Zaldibiri ordainean ura beste nonbaitetik ematea aipatu da baina hori lotu gabe dago. Aipatu da 35 lanpostu sortuko lituzkeela.

Udala ahaleginak egiten ari da, batera eta bestera baina Konfederazioaren eta Zaldibiko Udalaren artean dago pila.

Lizarrustiko lanak

Martxa onean doaz "Kamiñero" etxeko lanak. Aralarko Parkearen sarrera edo babesetxe izango da eta Diputaziotik esan zaigunez, aurten udazken aldera amaituko dira lanak. Orain urtebete hasi ziren eta azken egunotan apakalekua egiten ari dira.

Etxe berezia da, "neovasco" deritzan erako eraikuntza. Goiko pixuan 40 lagunentzat etzaleku edo literak jarriko dira eta bertako zaintzaileentzat bizi-lekua. Beheran, berriz, bulego, harre-ra-leku eta taberna. 60 milioiko presu-postua du lanak.



Lizarrustiko Partilekua.

Zapatuan ostikoz

Kirol Elkartek, III. Futbito Txapelketa antolatu du. Urtarrilaren 27an hasiko da. Talde bakoitzak 6.000 pezeta ordaindu behar du. Partiduak larunbat arratsaldean jokatu dira. Izena, urtarilaren 20rako eman behar da. Kiroldegia: 180384, Pako Urrestarazu: 180406, Joseba Kerejeta: 180355, Eneko Erauskin: 180000.

Heriotzak

Bixente Goikoetxea Imaz, urtarilaren 2an hil zen 82 urte zituela. Aizkortae-neakoa. Inazio Apalategi Agirrek, urtarilaren 13an utzi gintuen 90 urte zituela. Imaz-berri etxekoa. Atsekabeen lagun familiakoak.

Motz-motz

Elizako organoa. Garbitu diote aurpe-gia. Zoragarri gelditu da. Laster ekarriko dituzte Katalunyatik barruko trasteak.

Gabillene. Egunotan hasi dira Gabillene-zaharra berritzeko lanak. Kristau heziketarako ekintzetxe bihurtu nahi du Elizak. Puska berririk ez du izango. Aurpegi eta tripa berriak bai.


Urbitearte. Ergonekoa. Hasi dute sagardo-garaia. Hilaren 9an hasi ziren txotxetik.

Zinpekoak. Azkenean 2 herritar izango dira zinpeko edo jurado. Guztira 6 izendatu zituzten, baina, 4-k euren ezina arrazoitu dute eta Iker Barriola eta Fermin Jauregi gelditu dira.

 Jon Aizpurua

Ezkerretik eskubira

1. Txirrindularia. Euskaraz eta ...
2. Harreman. Miatu. Nikotina-ren haseran.
3. Prediku egin. Oraindik. Oxigenoa. Alderantziz, telebista marka bat.
4. Bokalak. Titi-ren bukaeran. Kain-en anaia. Alderantziz, ahuntzaren arra. Indioa.
5. Kotxe modelo. Tarte. Mikel-en bukaeran. Kafea. Bostehun.
6. Ipuinetako magoa. Bokala. Bizileku. Errepikaturik, bokala.
7. Gaizpera. Dolutu. Alderantziz, mutil izena.
8. Hanka. Nitrogenoa. Egiazko. Amerizioa. Oxigenoa. Iodoa.
9. Kontsonanteak. Somatu. Esne marka bat. Euskal Irrati Telebista.
10. Tirano. Doilor. Alderantziz, gastatu.
11. Uranioa. Alderantziz, basoek, mendiek, zuhaitzek, animaliek... eratzen dutena. Jendeak bizitzeko erabiltzen du. Mokordo.
12. Athletik-eko jokalaria. Nitrogenoa. Mutil izena. Alderantziz, behiek egiten dutena.
14. Rafa-ren bukaeran. Dauka. Alderantziz, igaz. Potasioa. Urrun.
15. Zimail. Athletik-eko jokalaria. Egiptiarren jainkoa. Alderantziz, Kontzientzi Eragozpenerako Mugimendua.
16. Bokala. Galdetzeko. Trakeskeri. Kontsonante izena.
17. Goiko aldea. Dokumentu. Kanpo. Kontsonantea.
18. Margarina marka bat. Iodoa. Inguma-ren bukaeran. Errepikaturik, kontsonantea. Indiar subiranoa.
19. Mila ta bostehun. Kotoi. Ziklokreseko txirrindulari ohia. Pluralean.
20. Adoretsua. Bertsolaria. Kontsonante izena. Oxigenoa.



Goitik behera

1. Tortikolis dutenak. Goierriko herria.
2. Zigarro asko erretzen dituen. Nitrogenoa. Errepikaturik, bokala. Oren.
3. Bihi. Indioa. Kontsonantea. Falta. Kontsonantea.
4. Alderantziz, erreskadan. Kotxea uzteko tokia. Bokala.
5. Izutu. Atarramendu. Alderantziz, Suitzar ibaia. Kontsonantea.
6. Lohi. Kontsonantea. Hitzarmen. Kontsonante izena. Kontsonantea. Kotxe modelo.
7. Suge erraldoia. Usoak harapatu. Ohitura.
8. Bokala. Eta. Bokala. Bokalak. Suitzako ibaia. Kremlin-en haseran. Bokala.
9. Kontsonantea. Moretu. Zink-a. Gaztelaraz, urdina. Kotxe modelo.
10. Egiptiarren jainkoa. Paralitiku. Alderantziz, une honetan. Bokalak.
11. Errusiako ibaia. Bederatzirehun ta larogei ta hemeretzi. Sarrera. Alderantziz, bertsolaria. Azkena.
12. Herri bateko biztanlea dela esateko erabiltzen da. Alderantziz, udara. Matematika-ren haseran. Goierriko herria.
14. Errepikaturik, bokala. Errepikaturik, bokala. Kume. Kontsonante izena. Mendi bat.
15. Leku. Bokalak. Logroñes-eko jokalaria.
16. Donostiako dantzaleku baten izena. Etxean sartzeko. Errepikaturik, kontsonanteak. Altu. Nota musikala.
17. Iodoa. Alderantziz, zigarroak botatzen duena. Ardoaren jainkoa. Kontsonantea. Okaran.
18. Trinitrotoluenoa. Zoro. Galioa. Euskal margolaria. Bokala.
19. Bi aldiz, titanioa. Bokalak. Begiratzen. Barre egiten dugunean.
20. Ogitegi. Hamaikak aldera egiten dugu jana.

Gorka Etxarri

LOINATZ

Taberna Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BFASAIN



KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
Tfn: 88.51.68
ORMAIZTEGI

OLAGI

sagardotegia

Sagardotegiko afariak
Enkarguz bazkariak
eta ospakizunak

☎ 88 77 26

ALTZAGA



5 talde emakumezko areto-futbolean

Ataun, Lazkao, Legorreta, Ordizia eta Zaldibiakoak dira hain zuzen ere. Denboraldi erdira iritsita, 3 talde Gipuzkoako txapelketa ari dira jokatzen (Ataun, Legorreta eta Ordizia) eta beste biak kategori baxugokoa den "Udaberri torneo" a. Irailetik aurrera seigarren talde bat ere izango dugu, Idiazabal federatuko baita. Ordizia ere, dagoen jokalaria kopurua ikusita, bigarren talde bat ateratzea aztertzen ari da.

Zailtasunak dira nagusi emakumeen futbol-taldeak antolatzeke garaian. Laguntza gutxi izaten dute eta diru arazoak ugariak izaten dira. Adibidez, Ordiziako Emilio Ortizek jakinarazi digunez, O.K.E.tik iritsiko zaion diruaren zain, poltsikotik ordaindu ditu orain arteko gastuak.

Taldeen egonkortasun eza dela eta, kategoriak osatzea ezinezkoa da. Denboraldi haseran, federazioan egi-

ten den bilera batean erabakitzen da kategori bakoitza zein taldek osatuko duten.

Gizonezkoentzat kirola egiteko aukera zabala da, emakumeentzat ez ordea. Eskolako kirolari jarraipen bat eman eta neskek kirola egiteko aukera da areto-futbola. Honela, Goierriko taldeetan neska gazteak dira nagusi. Esperientzi falta hau nabari bada ere, lan txukuna ari dira burutzen.



Ataun K. E.

Jokalariak: Pili Imaz, Agurtzane Auzmendi, Eneider Sukia, Maitane Dorronsoro, Ainara Aizpurua, Maider Urdangarin, Naiara Munduate, Arantxa Altuna, Rebeka Kaiero, Goizeder Loiarde, Ana Rosa Imaz, Leire Etxeberria eta Eider Goikoetxea. Entrenatzaile lanetan, Jesus Etxeberria eta Aitor Sukia aritzen dira.

Lazkao K. E.

Jokalariak: Maialen Izagirre, Maite Sarasola, Amaia Gomez, Nagore Reta, Amaia Sukia, Eneriz Lazkano, Leire Reta, Ainhoa Soraluze, Izaro Aldaondo, Mirella Santos, Rakel Sanchez eta Idoia Oria. Entrenatzailea: Imanol Aran. Delegatua: Lander Barandiaran.





Legorreta

Argazkia iazkoa bada ere, aurtan odorengo jokalariai ari dira: Nerea Goya, Laida Oiarbide, Yara Urtaza, Maria Jauregi, Miren Rezola, Sheila Lestayoy eta Izaro Jauregi. Entrenatzailea: Jon Diaz. Delegatua: Aimar Guerrero.

Ordizia K. E.

Jokalariak: Oihana Cordero, Naiara Gomez, Jone Etxeberria, Nerea Hernandez, Edurne Irastorza, Leire Dorronsoro, Enara Etxeberria, Estitxu Sanpedro, Maria Albisu, Marta Faus, Veronica Clemente eta Oihana Munate. Entrenatzailea: Emilio Ortiz.



Zaldibia

Jokalariak: Aloña Jauregi, Silvia Morales, Agurtzane Azurmendi, Amaia Ganzarain, Izaskun Ezkurra, Nekane Miranda, Maitane Colorado, Maitane Franco, Leire Lopez eta Maite Irazusabarrena. Arduardunak: Inazio Agirre eta Aitor Garmendia.

KANPOAN 21 URTE EGIN ONDOREN ITZULI DA SEGURARA

Juanito Oiarbide, zestapuntalari Floridan

Zestapunta, munduan zehar, 600en bat profesional dituen pelota modalitaterik zabalduena da, eta zesta sakonaz, atxiki nabarmena eginez, frontisaren kontra jokatzen da. Mende honen lehen herenean hasi ziren Florida, Mexico eta Cubako frontoiak zestapuntalari euskalduneh hornitzen.

Juanito Oiarbidek, maiatzean egingo du urtebete, zestapuntalari profesionala izatetik erretiratuta, bere herrira, Segurara, etorri zela. Floridako frontoietan, batez ere, Orlandon, 16 urte egin ditu. Uda partean, denboraldia ixtean, etxera etortzeko aukera izaten zuten; azkenaldian, ordea, hori ere ez. Bere anaia zaharrenak ere, Tomas Oiarbidek, 14 urte egin zituen Floridan kirol berean.

Anaiarekin hasi

Juanito eskuz ere aritua da. "Herri artekoan, gazteen mailan, Segurarrak finalera heldu ginen. Baina, ordurarte-ko partidu guztiak jokatu arren, azken partiduan ez ninduten jarri". Erremontean ere saiatu zen. "Garai hartan, ordea, oso zaila zen debutatzea. Soldadutza aurreratu egin nuen, eta handik etortzean, ordurako Floridan ari zen nere anaia Tomasekin hasi nintzen estraineko aldiz zestapuntan. Uda zen eta Tomas hemen zegoen. Proba egin behar diagu!. Hala, zesta hartu, Tolo-sara joan, eta 6 hilabetez aritu ginen entrenatzen Beotibarren".

Bartzelona, Milan, Florida

1974an Bartzelonan debutatu zuen profesionaletan. "Han ari ginela, Milango frontoia zabaldu zuten; eskeintza jaso, animatu, eta beste euskaldun batzuekin, 4 urte egin nituen Italian. 1979ko abenduaren 27an, berri- z, Atlantikoa gurutzatuta, EEBBetara, Floridara. Orduan, pelotari guztiak



Juanito, bere etxe atarian, gaztaina egurrez eta zumez, zestapuntarako zesta egiten.



Orlandoko "Orlando Seminole Jai-Alai" frontoian. Hemen jokatu zituen Juanitok partidurik gehienak.

ginen euskaldunak, Bizkaitarrak gehienak, Markina, Durango eta Gernika aldekoak. Gaur, ordea, pelota eskolei esker, bertakoak ere ari dira, eta ondo gainera. Hemendik, gazteak joaten dira oraindik, baina ondo ibili ezean itzultzeko arriskuz, urtebeterako kontratua besterik ez baitute". Azken urteetan asko jaitsi da zestarako zale-tasuna. "Gu joan ginenetik, dexente urritu da jendea frontoietan, eta dirua ere gutxiago jokatzen da. Lehen, as- tean 9 funtzio ere egiten genituen, orain, 5en bat". Han ez da txapelke- tarik jokatzen, kinielak baizik. "Kini- la bakoitzean 8 bikote aritzen dira, ba- koitza niki koloredun batekin. 7 tantora

14 kiniela egiten dira. Apostue- tarako tire handia dago; pelotan baino gehiago, zaldi eta galgo lasterketetan jokatzen du jen- deak. Pelotariak, hemen ez be- zala, frontoi berean jokatzen dute beti. Floridan, guztira, doze- na- ren bat izango dira. Floridaz gain, Connecticuten, New Yorken eta Rhode Islanden ere jokatzen da".

3 urte greban

Urte gogorak ere izan zituzten. "1988ko apirilean, pelotariok, grebari ekin genion. Enpresa- rioek, harremana, zuzenean gu- rekin izatean, baldintza txarretan ari- tzen ginen, injustizia handiak sufrituz. Gure interesak defendatzeko, sindika- tua antolatzea erabaki genuen. Enpre- sarioek ez zuten hori inondik inora onartu nahi, eta hala, hasi zen 3 urte luze iraungo zuen greba. Zenbaitek, atzera ere egin zuen, pelotari euskal- dunon arteko ordurarte-ko giro ona, erabat txartuz. Gaur, orduko borrokari esker, pelotariak sindikatua dute, egoera hobean aurkituz".

Zestagintza

Juanito, Durangoko lagun bati ikasiz, hasi zen zestak egiten, Italian zegoela. Oraindik ere, enkarguz, egin izan ditu. "Egitea ez da zaila, ondo egitea bai. Pelotariak, normala den bezala, asko eskatzen dute". Zestak egiteko gaztai- na egurra eta zumea erabiltzen dira. "Egurra, bertan forma emanda, Asti- garragatik ekartzen dut. Ehotzeko zu- mea, berriz, kanpotik. Orain 14 urte, hasi nintzen Orlandon, neuk jokatze- ko zestak egiten. Piskanaka, pelotari gehiagorentzat ere bai. Behar bezala- koa egiten, 2 egun ematen dira, eta iraun, berriz, pelotariaren arabera, 3-4 aste iraun ditzake".

 Joseba Telleria



Loinazko San Martin ikastetxeko ikasleak

1946-47 ikasturtean Loinazko San Martin ikastetxeko ikasleen argazkia da Maria Teresa Garziak bidali diguna. Beasain eta inguruko herrietako mutilak eta irakasle apaizak daude. Guztiak ezagutzen nahiko lan!

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.

BILDUMA BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICAS-EN ESKLUSIBA

**Asko Gustatzeko.
Gutxi Gastatzeko.**



2.850
P T A

Hemen dago jadanik MultiOpticas-eko Bonardi bilduma eskusiboa, adin, gustu eta poltsiko guztietara egokitzen diren modelo guztiekin. MultiOpticas-en garantiarekin 450 salmenta tokitan. Prezio paregabe batean. Gastatu gabe gustatzeko.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

BERGARA

ARRASATE

ORDIZIA

1.ak
ZERBITZU
OPTIKOETAN

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta 2 - EIBAR - ☎. 100522

Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.




ORBELAN

PLASTIKOAK

Kalitatezko sagardo kaja egilea

Ama Kandida Etorbidea, 13 ANDOAIN Tel. 59 11 51 - 59 15 90 Faxe 59 16 99



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA